

2. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa:

Cloze-testa. Testutik zenbait osagai ezabatu egin ditugu. Erantzun-orriko aukeren artean, inguratu aukera zuzena.

KALIGRAFIA, PARKINSONA DETEKTATZEKO

Parkinsona nerbio-sistemari erasotzen dion gaitza da. Mugimenduaren kontrolari, koordinazioa eta giharren tonuari eragiten die. Garunean dopamina gutxitzen denean sortzen da. Eta dopamina beharrezkoa da bizkor eta koordinazioarekin mugitzeko. Horrenbestez, gaixotasunaren adierazpen nagusia mugimenduen kontrol eskasa da: dardara, giharren zurruntasuna eta mugitzeko geldotasuna eta zailtasuna dira ____1____ argienak.

Gaixotasuna 1817an deskribatu zuen lehen aldiz Londresko James Parkinson fisikariak. Ordutik hona etengabe ikertu da, baina, oraindik ere, gaitzaren oinarriak ez daude argi. Gainera, parkinsona nahiko ____2____ dagoenean detektatzen da. Gizakiarengan sintomak agertzen direnerako garuneko lesioak oso larriak izaten dira eta gaixotasunak ez du bueltarik izaten. Diagnosi goiztiarra lortzea ____3____ da gaixotasunari aurrea hartu ahal izateko. Eta bide horretan koka liteke, hain zuzen, oraintsu plazaratutako metodo berritzailea ere.

Bada, Ávilako Hispafuentes enpresak sistema informatiko bat garatu du, atzerriko beste zenbait erakunderekin ____4____. Horren bitartez, ikertzaileek diote posible dela parkinsona izateko “aukera handiak” dituen pertsona bati gaitza “hasierako fasean edo alde aurretik” ____5____. Gakoa? Haren kaligrafiari erreparatzea.

Ikertzaileek diotenez, elektrokardiograma baten antzera hasten da prozesua; baina, kasu horretan, sentsoreak idazteko erabiltzen den besoan soilik jartzen dira, mugimendu muskularrak eta estimulu neurologikoak erregistratzeko.

Besoan jarritako sentsoreek bildutako informazioa zerbitzari bati bideratzen zaio, WiFi bitartez. Eta zerbitzari berera iristen dira ____6____ erabiltzen den arkatx digitalaren eta Tablet PCaren datuak ere (teklatura ordezkatzeko duen boligrafo berezi bati esker, koaderno batean bezala idazten da).

Idazten ari den unean, pertsonaren muskulu- eta nerbio-portaerari behatzea da metodoaren oinarria. Pertsona batek zenbait kaligrafia-serie behin baino ____7____ idatzi behar ditu. Eta gero emaitzak “normaltzat” hartzen diren patroï batzuekin ____8____ dira, bariazio posibleak ikusteko.

Aldez aurretik, aditu talde batek zenbait parametro zehazten ditu. Ariketak egindakoan, berriz, softwarea da errepikatutako testuak aztertu eta joerak bilatzen dituen.

Ávilakoekin batera, Erresuma Batuko, Alemaniako, Finlandiako eta Holandako ikertzaileek ere parte hartu dute proiektuan. Lehenbiziko aplikazioak irailean egin nahi dituzte, Finlandiako osasun-zentro batean. “Diagnosi klinikoa egiten duen medikuaren ____9____ osagarri izan liteke hau ere. Arrakasta izateko aukera handia duela uste dugu, antzeko tresnarik ez baitago eta parkinsonak jota jende ugari baitago nonahi”, esan dute.

Ávilakoekin batera, Erresuma Batuko, Alemaniako, Finlandiako eta Holandako ikertzaileek ere parte hartu dute proiektuan. Egun, 800.000 bat kaltetu daude Europar Batasunean.

AULESTIARTE, I. 7Kn argitaratua, 2010eko abuztua. Egokitua.

2. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa. Erantzun-orria

- | | | |
|------------------|-------------------|---------------|
| 1. | 4. | 7. |
| a) adierazlerik | a) elkartean | a) sarritan |
| b) egoerarik | b) elkartzen | b) gehiagotan |
| c) gaixotasunik | c) elkarlanean | c) maiz |
| d) sendabiderik | d) elkarketaz | d) gehiago |
| 2. | 5. | 8. |
| a) abiatuta | a) harrapatzea | a) aldetzen |
| b) aztertuta | b) sendotzea | b) paretzen |
| c) zahartuta | c) hautematea | c) erantzuten |
| d) aurreratuta | d) sendatzea | d) alderatzen |
| 3. | 6. | 9. |
| a) erabatekoa | a) idazteko | a) egitean |
| b) erabakigarria | b) ikertzeko | b) lansarian |
| c) erabilgarria | c) azpimarratzeko | c) jardueran |
| d) erabakitzeko | d) zuzentzeko | d) ekinean |

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN